

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

194/2019 Foru Agindua, apirilaren 16koa, zeinak Arabako Lurralde Historikoan pinu beldarraren (*Thaumatococcus panyocampa*) izurritea adierazten duen eta haren aurkako jarduerak herri onurakotzat aitortzen duen 2019. urtean

Mendi Zerbitzuko 82/2019 espedientean erregistratutako idazkien arabera, Artziniegako, Laudioko eta Okondoko udalek eta Baranbioko, Lantenoko, Lezamako eta Menagarai-Beotegiko administrazio batzarrek Arabako Foru Aldundira jo dute haien eskumeneko Pinus generoko basoei nabarmen eragiten dien pinu beldarraren izurriteari aurka egiteko tratamendu fitosanitarioak aplikatu daitezela eskatzeko (batez ere *intsinis pinuari*, eta neurri txikiagoan, pinu gorriari eta larizio pinuari).

Aipatutako eskaerak jaso ondoren eta zenbait erakundek kaltetutako beraien jabetzako hainbat mendietan tratamendu fitosanitarioa premiaz egiteko esakaeraren beharrezkotasuna egiaztatuta, alde batetik zuhaitzen kaltetzeari aurre egiteko eta izurritearen eragina jasan dezaketen konifera zuhaitzen osasun egoera orekatua mantentzen laguntzearen, eta bestetik, biztanleriari eta ganadu azindari eragin diezaieketen alergien eragina arintze aldera, Arabako Lurralde Historikoko Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Aginduak 60.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, pinu beldarraren (*Thaumatococcus panyocampa*) izurritea dagoela dioen honako adierazpen ofiziala aurkezten da. Erabaki hau izurrite guneen garapena aztertuz eta, zehatzago izanda, mendian eginiko prospekzio batetik lortutako datuen arabera kalte maila desberdina erakusten duten Kantauriar Eskualdeko, Arabako Ibarretako eta Arabar Lautadako 3.000 hektareako azaleran gune kaltetuenen garapena aurreikusiz hartzen da (kartografia 82/2019 administrazio espedientean jasoa dago).

Izurriaren aurkako tratamendu fitosanitarioa lurretik aplikatzea bideragarria ez dela aintzakotzat hartuta, beharrezko bide azpiegiturarik ez dagoelako eta gure mendien zailtasun orografikoak zuhaitzietara iristeko; bai eta ezin delako lortu zuhaitzen behar bezalako estaldura (zuhaitzen altuera, dentsitatea, malda...) eta izurriteak eragindako azalerak oso zabalak direnez zentzuzko denbora tarte batean tratamenduak ezin daitezkeenez egin, lan hauek airez egingo dira.

Landare osasunaren azaroaren 20ko 43/2002 Legeak 14. eta 15. Artikuluetan eta produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak 27. artikuluan xedatutakoa bete behar denez, beharrezkoa irizten zaio lanak airetik egiteari, beste aukera tekniko eta ekonomiko hoberik ez dagoelako.

Halaber, tratamendu eremuak lehenesteko irizpideak ezarri behar dira, egun dagoen aurrekontuarekin horietako zein lekutan egingo den erabakitzeko. Lehenesteko Tratamendu Eremuak dira horiek.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ofizialki adieraztea 2019an pinu beldar (*Thaumatococcus panyocampa*) izurritea dagoela honako udalerrri hauen jurisdikzio eremuetan: Aiara, Amurrio, Amurrio, Añana, Aramaio, Arraia-Maeztu, Artziniega, Asparrena, Berantevilla, Bernedo, Gasteiz, Iruraz-Gauna, Kuartango, Laudio, Okondo, Erriberagoitia, Donemiliaga, Gaubea eta Zanbrana.

Bigarrena. Izurrite horren aurkako jarduerak herri onurakotzat kalifikatzea.

Hirugarrena. Pinu beldarrari (*Thaumatococcus panyocarpa* Den. & Schiff.) aurre egiteko tratamenduk aire bidezko baliabideekin egiteko baimentzea irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak eskatzen duen bezala, Nekazaritza Sailak tratamenduaren aurretik edo aldi berean onartu beharko duen Aplikazio Plan batean jasoko direlarik.

Laugarrena. Lehentasunezko Tratamendu Eremuak (LTE) zehaztea, lehentasun ordena honen arabera:

1. Foru arau hau argitaratu aurretik edo ondoren jasotako eskaeren lurralde eremuan kokatzen diren gunek.

2. Jendeak sarri erabiltzen dituen aisialdi inguruak, 3. izurrite maila edo handiagoa dutenak.

3. 3. izurrite maila duten eremuak.

Lehentasunezko Tratamendu Eremu horiek gaiari dagokion espedienteko kartografian daude.

Bosgarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE